**MOTZAK** DEBABARRENAKO JAZZALDIA HASIKO DA BIHAR · **GEHIGARRI BEREZIA** DEKORAZIO ETA BEROGAILUAK · **KIROLA** EGIK HARRIJASOTZE APUSTUA GALDU ZUEN

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko azaroaren 5a/XII. urtea/507. zkia



TXEMI ESCUDERO

## Granadako elgoibartarra Atenaseko Joko Olinpikoetan

"LASTERKA DOAN ZALDIARI, AKULLURIK EZ" (Esaera zaharra)

# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

## **Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!





**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

2004-XI-5

asteko notizia



## Barrak eta izarrak

Lagun baten ingeleseko irakaslea estatubatuarra da, eta botatzeko asmorik ez zuela esan zien ikasleei duela aste batzuk. Gaztea da, ez ditu 30 urte baino gehiago izango, ez da yanki tipikoa, eta horregatik ikasleek harrituta galdetu zioten zergatik ez zuen botorik emango. Irribarrez erantzun zien: "zertarako?". Hor amaitu zen gaiari buruzko hizketaldia. Milioika dira hauteskundeotan botorik eman ez duten estatubatuarrak, partaidetza handia izan den arren. Guk ezin dugu botorik eman, nahiz eta Etxe Zuritik agindutakoak mundu guztian izango duen eragina. Presidentea aukeratu egin digutela esan liteke.

Badakit Bush eta Kerryren artean denbora-pasetako zortzi diferentziak aurkitzea zaila dela, baina Aznarren lagun cow-boy-ak munduko hainbat bazterretan utzi duen kiratsa jasanezina da, eta leihoren bat ireki beharra dago, txiki-txikia bada ere. Badirudi oraingoz pintza sudurrean jarrita jarraitu beharko dugula.

Badirudi esan dut zutabe hau idazten ari naizenean gauzak ez daudelako erabat argi. Asteazken goiza da eta ematen du Bushek irabazi dituela hauteskundeok, justu-justuan bada ere. Baina Kerryzaleek ez dute amore eman eta oraindik ere milaka boto kontatzeke daudela esan dute, hautagai demokrata lehendakari izan daitekeela, alegia.

Ez dakit azkenean txanponaren aurpegia ala gurutzea atera den, baina tamalez munduko herri askorentzako gurutzea izango delakoan nago...

**Montse Arregi**



## Suntsipen handiko ideiak

Oraindik Irakeko inbasioa bukatu ez delarik, Estatu Batuak oraindik itsu daude Sadam-ek deusezte handiko armamentua duela edo egiteko ahalmena zuela esanez, eta gu konbentzitzeko asmoarekin. Baina Historiak beti gogoraraziko digu Estatu Batuek ezkutuko aurpegia dutela; beste herrialde askok bezala.

1945eko abuztuaren 6an gertatu zen Japonian: Bigarren Mundu Gerratea bukatuta, Estatu Batuek bonba atomikoa bota zuten. Japoniak amore eman zezan nahi zuten, eta ikusi zuten aukera bakarra milaka pertsona momentuan hiltzeko armamentua erabiltzea izan zen. Noski, emaitza izugarri latza eta negargarria izan zen. Bat-batean zerutik zure bizitzarekin bukatuko duen eguzkia dator, itsu, gor, zure heriotzaz jabetu gabe.

Mundu hobeago, justu eta demokratikoa saltzen ari den demokrazia batek egin zuen hori. Gizakiok geure burua suntsitzeko ahalmena dugu. Nonbait, autosuntsipena zientifikoki ere aztertu beharko lukete. Fedea, amodioa, eta beste hainbat sentimendurentzat esplikaziorik ez dute lortzen, baina hitz egiten dute. Honetaz, ordea, ez. Mundu triste honetan lotsatzen gaituzten gauzak ez dituzte aipatzen eta kritika moralik ez dago egungo komunikabideetan.

Denek, urtero gogoratzen dute 1945eko abuztuaren 6ko hilketa masiboa, baina askok ez dute kuestionatzen horrek suposatu zuena. Gaur egun, nahiz eta bonba atomikoa ez erabili, badaude oraindik munduan suntsipen handiko armak eta ideiak.

Hala ere, abuztuaren 6a bakarrik ez dugu gogoratu behar, urte guztiko egunek izango baitute gogoratzeko zerbait. Tamalgarria benetan, baina egia. Eta agintari bakoitzak nahi duen bezala aplikatzen ditu bere suntsipen handiko ideiak, herrialde eta mundu osoan zehar demokrazia sustatuz eta aberastuz.

**Jokin Martinez**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ........ 5
mOtZ MotZ ........ 8
gehigarria ........ 11
kiROlAk ........ 28

# eskutitzak

2004-XI-5

## MARIBIRI ESKAERA

Maribi, merkadilloaren gaia pil-pilean duzun honetan, zuregana zuzendu nahi nuke. Ez pentsa fede txarrarekin natorrela, eskaera batekin baizik. Egoera gehiago endredatu baino lehen, erreflexio sakona egin eta hartutako erabakia atzera botatzeko eskatzera nator.

Askok diote boterea handiegi gelditu zaizula, agertzen duzun jarrera harro hori berria dela, eta gertatzen ari dena ikusteko gai ez zarela. Benetan diotsut jendearen harridurak harritzen nauela. Izan ere, berria al da zure alderdiak herria eta erakundeak AGINTZEKO erabili duen modua? Galdetu herriko gazteei, San Antolineko auzokideei depuradora auziarekin, Albitxurin lindanea lurperatzeaz, herriko gune guztiak zementuz eta eraikuntzaz betetzeaz… Ez al da herriaren zerbitzura zaudetela ahaztu egin duzuela herria zuen zerbitzura dagoela sinistera heldu arte? Noiz egin duzue aurreko aginteetan kontsulta bat? Noiz eskatu duzue parte hartzea? Iritzi bat? Inoiz eman al dute aurreko alkateek egindako kudeaketaren azalpenik? Barkatu Maribi, benetan ez nator ingurua gehiago lardastera, baina ziur nago zure jarrera zure alderditik urteetan hartutako heziketa politikoaren ondorioa dela. Beranduegi izan aurretik egin kasu herriaren nahiari, proposamen berrien bat-batekotasuna utzi alde batera eta behingoz erakutsi herria gidatzeko modu ezberdinak dituzula. Herriak eskertuko dizu.

**Izaskun Arozena - 15381622-G**

## EINBIOU-K PNV-RI:

PNVk ateratako idatziaren aurrean, momentuz adierazi nahi dugu:

1. Einbiou-ri eraso eginez ez duela lortuko konpontzea merkadilloaren auzian herriarekin duen arazoa.
2. Ordua duela inposizio bidea alde batera utzita, zezena adarretatik heldu, elkarrizketa hasi eta soluziobidea bilatzeko.
3. Bizitzaren beste arazoetan bezala, honetan ere elkarrizketa dela bidea eta horretarako Einbiou-k laguntzeko bere jarrera azalduko duela beti.
4. Azken Udal Plenoan PNVren jarrera itxia eta prepotentea entzun ondoren herritarren artean botatako ideia jaso du Einbiou-k, eta horrela proposatzen dugu HERRIARI HITZA EMATEA: hau da ERREFERENDUMA konbokatzea herriak erabaki dezan Udal Gobernuak (PNV eta EA) hartutako erabakiaren inguruan.

Udaletxeko funtzionamenduaz eta gure erakundeaz PNV-k esandako gezurren aurrean bere momentuan erantzungo diegu.

**Einbiou**

## "BA, NI EZ NOA BOTATZERA"

1968ko erreferendum "sí o sí" famoso hartan, Miguel mahai-buru edo "presidente de mesa" izendatu zuten. Eta erreferendum egunean zehar hainbeste kakalarrizko aurpegikera halamoduzkoak ikusi eta auzo-lotsa pasa ondoren heldu zen eskolako atea ixteko ordua. Atea itxi ondoren, barruan zeudenei esaten die: hemen barruko norbaitek botoa eman nahi badu, oraintxe du bere txanda. Hala, barruan zeudenek banan-banan bota zuten, eta nola ez, "guardia zibileko tenienteak" ere bai. Miguel mahaiburu bera zen azkena, eta dio: "pues yo no voto". Tenienteak sekulako erremuskada eta Miguelek berriz ere, "que yo no voto". Eta halaxe egin ere. Bere lekuan egoten zekiena zen Miguel.

Agur Miguel.

**F. Etxeberria**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.**

# Urruzunoren begi ezkutua



## Fama

Inbidia ematen zion famak. Famatuei inbidia zien. Haien boterea desio zuen. Aktoreen eta abeslarien bizitza izan nahi zuen. Haiek bezala, arrakastatsu. Jendearen aurrean azaldu eta miresten zutela sentitu. Txalo zaparrada entzun. Ingurukoek berari inbidia ziotela sentitu nahi zuen. Emakumeek desio zutela. Baita gizonezkoek ere. Taula gainera igo eta bera Jainkoa zela jakin. Bere hitzen aurrean jendea erotu egiten zela ikusi nahi zuen. Bere mugimenduekin txoratzen zirela.

Berak ez zuen medikua izan nahi. Ez zitzaizkion gustatzen legeak eta abokatua izateak ere ez zuen gehiegi tentatzen. Bazekien talentu handiko pertsona ez zela. Ez zen antzezle ona. Ahotsik ere ez zeukan. Ezta aparteko edertasunik ere. Berdin zitzaion. Halere, bere ametsa Jainkoaren parekoa izatea zen. Kosta ahala kosta. Horregatik, taula gainera igotzeko aukera sortzen zitzaion bitartean, barraren atzean hasi zen lanean. Kamarero lana, arrakastatsu izateko bidean entrenamendu ona zela zela sinetsita.

**Jasone Osoro**


ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILEAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **errotondetako lorategiak oso egoera kaxkarrean daude**: “Melitongo errotondak pena ematen du, Mendaro edo Eibarkoekin konparatzen badugu. Hala ere, Madalakoa dago egoerarik okerrenean. Ez dute lora bat bera ere landatu, eta ez dute behin ere txukundu. Ez dakit Udalaren edo Foru Aldundiaren lana den errotondak txukun mantentzea, baina dagokionak, bere lana bete beharko luke. Elgoibarren, bestalde, San Frantzisko iturriko lorategia eta Leku Ederrekoa izan ezik, gainontzekoak egoera tamalgarrian daude. Gainera, Madalako etxe berriak egiteko, Bernardo Ezenarro kaleko bost urkiak kendu zituzten, eta oraindik ez dituzte ipini”.



◆ Emakume batek azaldu digunez, **Plaza Txikian ezin da aparkatu**: “Plaza Txikiko aparkalekua oso txikia da, auto gutxi kabitzen dira, gehienetan ez da lekurik egoten, baina dagoenean ere, ezin izaten da aparkatu, gaizki aparkatutako autoek ez baitute maniobrak egiteko lekurik lagatzen. Eta txarragoa izaten da, autoa ondo aparkatuta laga, eta beste batek gaizki aparkatu duelako, autoa ezin ateratzea. Badakigu herrian aparkatzeko sekulako arazoa dagoela, baina autoa ezin da edonon, eta edozein modutan utzi”.

◆ **Pedro Migel Urruzuno kaleko bizilagun batek esan digunez, beraien kaleko beira eta plastikoa biltzeko kontenedoreak ez dituzte husten asteburuetan**: “Pedro Migel Urruzuno inguruko tabernariek lurrean uzten dituzte zabor poltsak eta botilak, eta Mankomunitatekoek ez dituzte jasotzen. Esaten dutenez, ez omen da beraien lana lurreko zaborrak kontenedoreetara sartzea. Dena zikinkeriaz beteta egoten da. Bestalde, paper kontenedorea txikia da, eta kartoia sartzeko muturra borobila dauka. Dendariek ezin izaten dituzte kartoizko kaxak bertan sartu, eta kanpoan utzi behar izaten dituzte. Paper kontenedore honetan, aldizkari eta egunkariak bakarrik sartu daitezke. Gainontzeko lekuetan bezalako paper kontenedorea jartzea eskertuko genuke”.

▼





Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

AROCENA - OLIVARES
ABOKATUAK

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Ahaztu zaitez komunitateek dakartzaten gestio lanetaz eta gozatu zerbitzu tekniko eta juridiko oso batez.

- Junten antolamentua
- Akten idazketa eta komunitatearen liburura transkripzioa.
- Lehendakariari aholkuak.
- Kobraketen kudeaketa.
- Diru-laguntzen tramitazioa.

*Utzi ezazu komunitateen gestioa profesionalen esku!*

San Frantzisko, 7 – 1° (Elgoibar)
Tel.: 943 74 24 04 faxa: 943 74 10 73
Jr.arocena@euskalnet.net

# Granadako elgoibartarra

***Txemi Escudero Atenasen izan zen abuztuan. Ez zen oporrak pasatzera joan Greziako hiriburura, 2004ko Joko Olinpikoak ikustera baizik. Gainera, ikusle moduan joan zen arren, zaldien doma klasiko modalitatean akreditatuta zegoen, eta Txemik berak kontatu digunez, zaldien prestaketa guztiak ikusi, partehartzaileekin egon, eta zaldien probak egiten ziren toki guztietara sartzeko aukera izan zuen. Astebete pasatu zuen Txemik Atenasen. Elgoibarko jaiak galdu zituen, baina errepikatzeko moduko esperientzia izan omen da: "Lau urte barru Pekinera joango naiz", esan zion emazteari etxera itzuli zenean.***



## Astebete Atenaseko Joko Olinpikoetan

Ez da erraza Joko Olinpikoetarako sarrerak lortzea, eta are gutxiago akreditatuta joatea. Txemik zaldien munduan egiten du lan, eta jende asko ezagutzen du. Berak esan digunez, Igancio Rambla Xerezeko Zaldi Eskolako zuzendaria eta zaldizko olinpikoaren bitartez lortu zuen akreditazioa: "Bidaia eta hotela hartuta geneuzkan, baina Joko Olinpikoetarako sarrerak lortzea oso zaila zen. Igancio Ramblarekin hitz egin nuen, eta esan zidan, parte hartuko zuen zaldi bakoitzeko lau lagun akreditatzeko aukera zegoela. Militarrek zaldi baten bi akreditazio Federazioari utzi zizkioten, eta Igancio Ramblaren bitartez, bi akreditazio horiek eman zizkiguten. Honela, nire nagusien alaba Victoria eta neu joan ginen".

Toki guztietan bezala, honetarako ere kontaktuak edukitzea garrantzitsua da: "Atenasera iritsi ginenean, Espainiako Batzorde Olinpikoaren auto bat geneukan zain. Akreditazioa lortzeko hiri olinpikora eraman gintuzten, eta zoragarria izan zen. Eskumuturreko bat jarri ziguten, eta zaldien modalitate guztietarako sarrera librea geneukan, eta zaldiak nola prestatzen zituzten ikusteko aukera ere izan genuen".

## Ikuskizun bikaina

Txemi eta Victoriak ikuskizun bikainaz gozatzeko aukera izan zuten, izan ere, partehartzaile espainiarrek proba oso onak egin zituzten, eta domina bat baino gehiago lortu zituzten: "Doma klasikoan zilarrezko domina lortu zuten espainiarrek taldeka. Banakako alorrean Beatriz Ferrer Salat-ek brontzezko domina lortu zuen eta Rafael Sotok diploma olinpikoa. Duela urte batzuk zaldien alorrean Espainia oso atzean zegoen, eta aurten oso ondo ibili dira. Honelako ikuskizunik ez dugu erraz ikusiko berriz, izan ere, hiruzpalau zaldi jubilatzeko moduan daude dagoeneko. Zaldiak gustatzen zaizkionarentzat harrigarria da honelako ekitaldi bat ikustea".

## Partehartzaileekin hegazkinean

Bartzelonan hartu zuten hegazkina, eta Atenasen parte hartuko zuten kirolari askorekin egin zuten topo. Txemi ez da isilik egoten den horietakoa, eta ahal zuen famatu guztiekin hitz egin eta argazkiak atera zituen: "Nesken Maratoi Taldekoekin elkartu nintzen, eta bi neska Elgoibarko Mugerza Krosean ibilitakoak ziren. Yago Lamela eta Niurka Montalvorekin ere egon nintzen, eta badirudi suerte txarra eman niela, ez baitzuten gero ezer egin. Piraguismo taldekoekin eta beste hainbat kirolarirekin ere egon nintzen. Oso polita izan zen".

## Errepikatzeko moduko esperientzia

Txemirentzat sekulako esperientzia izan da: "Etxera iritsi nintzenean, nire emazteari argi eta garbi esan nion, lau urte barru, Pekinen egingo diren Joko Olinpikoetara joango naizela. Oso ondo pasatu nuen".

Zaldien ikuskizunaz gain, Txemik triatloiko probak ikusteko aukera ere izan zuen: "Nire hoteleko hondartzan triatloi proba egiten zen, eta nesken lasterketa ikusteko aukera izan nuen. Ainhoa Murua zarauztarrak hartzen zuen parte, eta euskaldun jende mordoa zegoen. Itsasotik irten ostean, sekulako aldapa igo behar zuten bizikletan, eta oso gaizki pasatu zuten. Batzuk bizikleta eskuan zutela igo zuten aldapa, eta partehartzaile batek erdi negarrez esan zidan, gehiegizkoa izan zela. Ikuskizun polita izan zen".



# ATENASEN

## Turismo apur bat

Behin Atenaseraino joanda, Txemik turismo apur bat egiteko ere aprobetxatu zuen. Esan digunez, Kapera Ortodoxoak izugarri gustatu zitzaizkion: "Partenoia, eta bertako ingurune guztia bisitatu nuen, eta gehiena Kapera Ortodoxoak gustatu zitzaizkidan. Honetaz gain, Espainiako Erregeak ezkondu ziren katedrala bisitatu nuen, eta Queen Mary itsasontzia ikustera ere joan nintzen, baina ez zidaten gerturatzen uzten, eta urrunetik atera nizkion argazkiak".

Honetaz gain, Atenaseko jatekoa ere oso ona zela kontatu digu Txemik: "Sekulako ondo jaten nuen. San Bartolome Egunean, greziar entsalada, eta kilo erdiko txuleta handi bat jan nituen, ardo botila on batekin. Elgoibarko pilota partiduak ikusi ezin nituenez, San Bartolomeren omenezko afaria egin nuen".

Txemik esan digunez, beroarekin gaizki pasatu zuen: "Ni Granadan bizi naiz, eta hala ere, beroarekin beldurtuta geratu nintzen. Uneoro izerditan nengoen. Garagardoa merke zegoen, eta eskerrak!".



ARGAZKIAN: Ignacio Rambla (Xerezeko Zaldi Eskolako zuzendaria) eta Txemi, Ignaciok lortutako zilarrezko domina soinean duela.

## GRANADAKO ELGOIBARTARRA



*Txemi zaldi gainean Granadako "Las Rozas" kortijoan. Bertan bizi da bere emazte eta alabarekin. Guztira 19 zaldi dituzte*

Duela 8 urte inguru joan zen Txemi bere emazte Mila eta Eluska alabarekin Andaluzia aldera bizitzera. Granadako Illora herrian bizi dira, "Las Rozas" izeneko kortijoan. Oso gustura bizi dira bertan, eta ahal dutenean etortzen dira Elgoibarko senideak bisitatzera.

19 zaldi eta 21 txakur dituzte, eta horiek zaintzea da bere lana. Hiru urteko behor bat daukate, Bandida izenekoa, eta honekin hainbat lehiaketatan hartu izan du parte Txemik: "Oso ondo zaindu eta prestatu behar da. 1.200 metrotara bizi gara, eta neguko ilea ez jartzeko manta batekin tapatu behar izaten dut. Ondo orraztu, jaten eman, eta lehiaketarako dotore-dotore ipini".

Honetaz gain, bertako langileen ardura ere berak dauka: "Orain ni naiz arduraduna, animaliak zaintzeaz gain, bertan egin behar den lan guztia nire esku dago. Ardura handia da, baina konfiantza handiko langileak dauzkat. Nagusiak oso pozik daude nire lanarekin".

Elgoibartar asko izan dira "Las Rozas" kortijoa bisitatzen. Besteak beste, Jose Gurrutxaga korrikalaria izan zen joan zen ekainean, eta lasterketa bikaina egin omen zuen han egon ostean: "Datorren urtean, Espainiako Txapelketa jokatu aurretik berriz etortzea nahi omen du".

2004-XI-5

## Ostegunetako azoka lekuz aldatzeko 3 mozioak atzera bota zituen EAJ-EA koalizioak

### Udal Pleno Aretoa txiki geratu zen aldeko eta aurkako herritarrak batzeko



Urriaren 29an ospatu zen Osoko Udalbatzarraren Ohiko bilera ez zen batere ohikoa izan. Batetik, inoiz baino jende gehiago bildu zelako Udal Pleno Aretoan eta bestetik, tentsioa nabarmena izan zelako. Zinegotzi eta herritarren artean lau udaltzain zeuden gerta zitezkeen istiluak eragozteko eta Plazan, Ertzantzaren furgoneta bat. Pleno Aretoan ostegunetako azoka lekuz aldatzearen aurka dauden herritarrak, eta Gobernu taldeak hartutako erabakia babesten zuten herritarrak bildu ziren.

Oposizioko alderdiek ostegunetako azoka lekuz aldatzearen aurkako 3 mozio aurkeztu zituzten. EB-IU, PSE-EE eta PP alderdiek elkarrekin bat, EB-IUk bestea eta Einbiouk EB-IUren bitartez azkena. Oposizioko alderdietako ordezkariek negoziazioaren eta elkarrizketaren bidea hartzeko eskatu zioten Udal Gobernuari, inplikatutako aldeak eta agente sozialak bilduko dituen mahaingurua osatzea, alegia.

Mozioak ez ziren onartu EAJ-EA koalizioko zinegotzien aurkako 12 boto jaso baitzituzten. Nekane Ortuostek EAren izenean berba egin zuen: "gure proposamena saltzaile ibiltariek Sigmako orubea denbora mugatu batean proba dezatela da eta bien bitartean arazoaren parte diren alde guztien arteko negozioak hastea. Mozioak aurkeztuz ez da irtenbiderik topatuko, horregatik bozkatuko dugu aurka". Igor Palominok (EAJ) defendatu zuen Udalaren postura, eta azoka lekuz aldatzeko erabakiarekin aurrera jarraitzen zutela esanez hasi zuen hitzaldia, aurkako herritarren txistu eta zarata artean. Orain arte aurrez ezagunak diren arrazoiak izendatu zituen mozioei aurka egiteko: "Legeak Udalen eskumenean lagatzen du azokak non eta nola jartzeko erabakia eta lege horretan babestuz hartu dugu erabakia". Bukaeran aldeko txaloak eta gaitzespen oihuak jaso zituen zinegotziaren hitzaldiak eta "Cara al sol" abesten hasi ziren azoka lekuz aldatzearen kontrakoak. Bilera amaitu aurretik mahaian eserita zeuden Einbiou plataformako bi kidetako batek, Inaki Odriozolak, hartu zuen hitza eta arazoari irtenbidea emateko herritarren artean erreferenduma deitzeko eskatu zion Marivi Agirregomezkorta alkateari.

## Elgoibarko eta inguruko herrietako hainbat saltzaile ibiltarik euren saltokia Sigman jartzeko baimena eskatu diote Udalari

### Azokako merkatariek beren postura mantenduko dutela azaldu zuten

Joan den irailetik, Elgoibarko eta inguruetako hainbat saltzaile ibiltarik baimena eskatu diote Udalari, euren salmenta-postuak Sigman kokatu ahal izateko. Elgoibarko alkateak, zenbait bilera egin ditu Saltzaile Ibiltarien ordezkariekin, Udalak azoka lekuz aldatzeko duen asmoa azaldu eta Sigmako kokapen berriak dituen ezaugarrien eta abantailen berri emateko. Marivi Agirregomezkorta alkatearen hitzetan, "Elgoibarko Udalak ez du izan herrian egiten den asteroko azoka desagerrarazteko asmorik, saltzaileek gordeta baitute Sigman tokia".

Raul Argaiz, Azokako Merkatarien bozeramaileak esan digunez, "kontu hau gugan presioa egiteko estrategia bat dela uste dugu. Irailaren 8an bildu ginen alkatearekin lehenengo aldiz, eta ordutik gauza bera esaten dihardu, baina momentuz ez da inor Sigmara joan".

**Merkatariak tinko**

Azokako merkatariek, bestalde, beraien egoera zein den informatzeko prentsaurrekoa eskaini zuten atzo, osteguna, Plaza Handian. Herritarren, alderdi politikoen, sindikatuen, eta beste hainbat talderen babesa eskertzeaz gain, beraien postura mantenduko dutela azaldu zuten: "Udalak azaltzen dituen abantailak, guretzako inposaketak dira. Errazagoa eta guztiontzako hobeagoa izango litzateke Plaza Handian jarraitu ahal izateko irtenbideren bat bilatzea". Udalak Sigman jarri nahi duen estalkiari buruz, "nahi dutena jarri dezatela, Sigmak azokaren heriotza ekarriko du". Azkenik, Udalari erreferendum bat egin, eta azokaren lekua herriak erabaki dezala eskatu zioten. Azokako merkatariek ez dute atzera egingo, eta greban jarraituko dutela adierazi zuten.




*Azokako merkatariak prentsaurrekoan.*

# Debabarrenako jazzaldia hasiko da bihar, azaroak 6

Azaroaren 19an *Tres Hombres* taldea izango da Elgoibarren



Errabal Kultur Elkarteak, eskualdek hainbat udalen laguntzarekin antolatuta, Mutrikun hasiko da bihar larunbata, azaroak 6, Debabarrena Eskualdeko Jazzaldia. Errabal Elkartea 2002. urtean sortu zen jazza sustatzeko helburuarekin. "Debajazz: Ibetondoko Jazza Debabarrenian" izena jarri diote antolatzaileek, Deba ibai ertzean dauden herrietan ospatuko delako. Soraluzen, Eibarren, Elgoibarren, Deban eta Mutrikun egingo da aurtengoan, eta datozen urteetan errepikatzea gustatuko litzaiekeela esan digute.

**EGITARAUA:**

- Mutrikun, azaroaren 6an, *Teresa Zabalza Quintet.*
- Deban, azaroaren 12an, *Jon Urrutia.*
- Eibarren, azaroaren 13an Musika Eskolan, *Victor de Diego Quartet,*
- Elgoibarren, azaroaren 19an, Herriko Antzokian, *Tres hombres, 22:15ean*
- Soraluzen, azaroaren 20an, *Iñaki Salvador.*

## 301.298 euro gehitu dizkio Udalak 2004ko aurrekontuari

EAJ eta EA alderdien aldeko botoekin, 2004ko aurrekontuari 301.298 euro gehitzea onartu zuen Udal Plenoak. Ezker Batua eta PSE-EE alderdiek ez zuten botorik eman, eta PPk kontrako botoa eman zuen.

Besteak beste, honela inbertituko da diru hori: 100.000 euro inguru berrikuntza eta urbanizaziorako erabiliko dira, hasieran uste zena baino 40.000 euro gehiago. Musika eta Dantza fundazioak, 24.548,79 euro gehiago jasoko ditu, guztira, 395.943 euro. 36.000 euro Kakatzako depositoa konpontzeko erabiliko dira, 12.000 euro erabilpen orokorreko ondasunentzat, 27.000 euro errepideak garbitzeko, eta 15.000 euro kontsumo elektrikoak sortutako gastuetarako.



## Hainbat auto irekitzen saiatu zen arrasatearra atxilotu zuten Elgoibarren

Ertzantzak, Elgoibarko Udaltzaingoaren laguntzaz, hainbat auto irekitzen saiatu zen 21 urteko, M.D.F. arrasatearra atxilotu zuen joan zen igandean, urriaren 31n. Goizaldeko 12:30ak aldera, udaltzainek dei bat jaso zuten, gazte bat Aita Agirre Enparantzan aparkatuta zegoen auto bat irekitzen saiatu zela esanez. Gazte hau beste auto bat zabaldu nahian harrapatu zuten udaltzainek. Gaztea atxilotu eta Ertzantzara eraman zuten.

## 17 euskaldun berrik parte hartuko dute "Tertuliak" programan



Aurtengoan, 17 euskaldun berri eta 6 euskaldun zaharrek hartuko dute parte Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzaz antolatzen duen "Tertuliak" programan. Egitasmo hau Arigera proiektuaren baitan jarri zen martxan, eta proiektua bertan behera gelditu zen arren, Elgoibarko Izarrak "Tertuliak" mantentzea erabaki du. Egitasmo honen baitan, talde txikitan banatuta, astean ordubetez jardungo dute euskaraz berbetan, euskaldun zahar eta berriek.

## Gabon Zahar Feria abenduaren 31n

Elgoibarko Kultura Zerbitzuak, 2004ko abenduaren 31n, ostirala, ospatuko den Gabon Zahar Ferian bertako produktuak saltzeko postua jarri nahi dutenentzako epea abenduaren 22ra arte zabalik dagoela jakinarazten du. Interesatuek, 943 74 21 58 telefonora deitu, edo 943 74 41 61 zenbakira fax bat bidali dezakete.

2004-XI-5

### Gipuzkoako gazteen %16a bakarrik joan daiteke gurasoen etxetik 30 urte bete aurretik

# ETXEBIZITZA, ESKUBIDEA BAINO, EZ AL DA LUXU BAT?



## ION ASTORKIA

**42 urte, komertziala**

Bai, etxebizitzek daukaten preziorekin, luxu bat da. Eskubidea izan beharko litzateke. Norbaitek zerbait egin beharko luke prezioak jaitsi eta egoera aldatzeko. Ez da erraza.

## MERTXE MURUAMENDIARAZ

**56 urte, saltzailea**

Merkatu librean etxebizitza luxua bihurtu da. Gazteentzako aukera bakarra Babes Ofizialeko Etxeak dira, hala ere ez dira merkeak, baina aurre egiteko modukok dira. Babes Ofizialeko Etxe gehiago egin beharko lirateke.





## KAIET CASARES

**29 urte, tabernaria**

Bai, etxebizitzak garestiegiak dira, eta ordaindu ahal izateko lan asko egin behar da. 30 urterekin etxea erosi, eta jubilatu ostean oraindik etxea ordaintzen zaude. Etxebizitza erostea, bizitza hipotekatzea da.

## SONIA GARCIA

**30 urte, urdaitegiko langilea**

Bai. Gaur egun ikasketak amaitzerako 25 urte inguru dauzkazu, lana bilatzeko beste urte bat behar da gutxienez, eta diru apur bat aurreztea oso zaila da. Bakarrik ezin da etxerik erosi, eta biren artean ere, ez da erraza.





## KURUTZ CASTRILLEJO

**46 urte, metaleko langilea**

Bai, dudarik gabe. Elgoibarren etxe berri batek 45 milioi inguru pezeta balio ditu, eta horretarako bi edo hiru soldata behar dira. Hutsik dauden etxeak gazte jendeari prezio merkean eskaintzea da irtenbide bat.

## MARI MAR MONREAL

**36 urte, etxekoandrea**

Bai, etxebizitzak oso garesti daude, eta gazteentzat oso zaila da etxetik joatea. Gaur egun, milioietaz eguraldiaz hitz egiten den bezain erraz aritzen gara. Babes Ofizialeko Etxeak egitea izan daiteke irtenbide bat.



CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

JOSE pinturak
(Txema)
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

# Dekorazio gehigarria

gehigarri berezia

## Inon ez etxean baino hobeto

Etxe bat, bakarra egiten duten detailez josia eta jantzia dago.
Txoko, altzari eta egongela bakoitzak bertan bizi den pertsonaren izaeraren esentzia islatzen dute.
Altzariak eta argiztapen aparatuak esaterako, dekorazio elementu funtsezkoak dira
eta aukeratu aurretik gauza asko hartu beharko ditugu kontutan.
Gehigarri honetan hainbat proposamen eta gomendio aurkituko dituzue
eta baita, nora jo dezakezuen etxea norbere gustura apaintzeko ere.
Apaintzeaz gain, etxean eroso eta epel egotea ezinbestekoa da neguari begira.
Horregatik berogailuen inguruko azken berrikuntzak ere jaso ditugu gehigarri berezi honetan.



## Ehunak dekorazioan

Gortinarik gabeko etxea ez dagoela osatuta dio esamolde ezagun batek, eta ehunak edozein etxeren etiketazko trajea dira. Egun, dekorazio dendetan aurki genitzakeen ehun motak zenbatezinak dira.



Ehunen konposaketa eta ezaugarrien gaineko ezjakintasunak buruhauste bat baino gehiago sor dezakete. Izan ere, zenbait ehunek gortina bat egiteko edo sofa bat babesteko egokiak direla dirudite lehen begiratuan, baina bakoitza erabilera konkretu bateako pentsatu eta diseinatua izan da. Horrela, gortinak irauteko eginak izaten dira, baina ukimen leunekoak. Sare-errezel edo bisiloak, aldiz, ehun gardenekin osatzen dira argitasunak leihoa iragan eta etxea argitu dezan. Erosteko ahalmena badugu zeta moduko ehun garesti baina elegantea aukera dezakegu. Dena dela, ez da beharrezkoa rayón eta tafetán motako ehunek antzerako emaitzak ematen baitituzte, horren garestiak izan gabe.

Tapizgintzako ehunekin iraunkortasuna da bilatzen duguna; sofa, besaulki, aulkiak... asko erabiltzen diren elementuak baitira. Ehun lodi, iraunkorrak eta garbitzeko errazak izatea komeni da. Jacquard ehunak ezaugarri hauek ditu eta horregatik da erabilienetakoa.



TEMPUR · Dunlopillo · laxy · Mediterráneo · MOVIFLEX

Zure logela aukeratzerakoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

## Gure erakusketa bisita ezazu!

### TEMPUR

PRESIOA ARINTZEN DUTEN KOLTXOI ETA BURKOAK



**15 URTEKO BERMEA**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.

### Dunlopillo





**10 URTEKO BERMEA**

Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.

**%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU**

### laxy zzz



**5 URTEKO BERMEA**

funda aldagarria
30° tan garbikorra





Latexeko xafla bi aurpegietan.
5 dentsitate ezberdinekin.
Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako
Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

## LAGUNAK

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

# Koloreak eta gogo-aldarteak

Kolore tonu bakoitzak gugan duen eragina ezagutzea etxea eta lantokia dekoratu eta harmonizatzeko erreminta baliotsua da. Koloreak behar bezala erabiliz, giro atseginak sor litezke edo energia berpiztu. Funtsezko 5 elementuak: sua, ura, egurra, lurra eta metala koloreekin ordezkatu daitezke. Edozein arrazoi tarteko, elementuetako bat gure ingurunetik falta bada, ordezkatzen duen koloreko objektu batez ordezkatu eta 'chi' edo energia orekatzea lortu dezakegu. Era berean, bost elementuetako bat nagusi den leku batean ere ez da gomendagarriena. Dena metala edo sua bada edo ingurune batek urik ez badu gure gogo aldarteak igarri egingo du.





**ORDEZKAPEN ZUZENAK**

| Elementua | Kolorea |
|---|---|
| Ura | Urdina, berde iluna eta beltza |
| Lurra | Horiak eta okreak |
| Egurra | Berdeak eta urdinak |
| Sua | Gorriak. Urdinak eta doratuak. Arrosak eta zuria. |
| Metala | Zuria, pastel tonuak, grisak, beltzak eta zilarra. |




# Kuala

## dekorazioa



- Altzariak
- Koadroak
- Ehungintza
- Sofak
- Opariak
- Argiztapenak
- Bainugelako osagarriak
- Sukalderako osagarriak
- Alfonbrak
- ...












*Oso prezio eskuragarriak!*

Poligono Axiri
**AZKOITIA** (Eroski parean)
Tel.: 943 85 05 86 • Faxa: 943 85 05 87

# Zeramika, kolore pixka bat bizimodua orekatzeko

Zeramikaren munduan minimalismoa indar handia duen tendentzia izaten jarraitzen duen arren, azken aldian 60 eta 70. hamarkadetara begiratu eta garai hartako ideiak eta joerak berreskuratzea modan dago.

Zeramiken koloreari dagokionez adibidez, aldaketa bat eskatu eta desiratzen zutenek kolore biziko zeramiketan aurkitu diete euren erreguei erantzuna.

Kolorearen arloan egin diren aurrerakuntzei esker, amaitu satinatu eta distiragabea duten kolore azido eta intentsuak eskura ditzakegu egun. Espainia aldeko zeramikaren sektoreak "pop" tendentziaren aldeko apustua egin du eta kolore bakarreko piezak elkar uztartzen ditu mosaiko deigarriak lortuz.





Beste berrikuntza bat materialen nahasketaren ondorioz sortu da. Horrela, zeramika eta beiraren arteko nahasketatik orain arte pentsaezinak ziren emaitza kuriosoak lortu dira.

Duela gutxi plastikoari ere ateak ireki dizkio zeramikaren industria. Egurrak, berriz, epeltasun sentsazioa ematen jarraitzen du.




# ASKETA ERREFORMAK, S.L.

## Gremioen zuzendaritza

**Salmenta zuzena gremio eta partikularrentzat**




Arkitektua • Aparejadorea
Dekoratzailea • Igeltserotza
Elektrizitatea • Iturgintza
Pintura • Leihoak



Klimatizazioa • Igogailuak
Metal arotzeria • Zureria
Barrualdeen dekoratzailea
Eguzki energia



**Aurrekontuak konpromisorik gabe**




Erakusketa eta bulegoa
Maxpe, 3 behea • 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 • Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com



**BIENA AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 16
☎ 943 743 116

**GARCIA AROZTEGIA**
P. Muguruza, 30
☎ 943 743 238

**ULAZIA AROZTEGIA**
Santa Klara, 10
☎ 943 740 547

**ZABALA AROZTEGIA**
Deba kalea, 16
☎ 943 740 396



**A. MARKEZ IGELTSERITZA**
Urasandi, 24
☎ 943 743 418



**ARAMAR ELEKTRIZITATEA**
Morkaiko, 1
☎ 943 741 280

**AZPELETA ELEKTRIZITATEA**
San Frantzisko, 51
☎ 943 741 238

**JOSEBA ELEKTRIZITATEA**
Pedro Muguruza, 29
☎ 943 740 902
☎ 659 93 49 64



**IPINTZA PINTURAK**
Foruen Enparantza, 4
☎ 943 740 440
☎ 607 740 440

**JOSE PINTURAK**
San Bartolome, 28
☎ 943 741 255

**P.P. BERISTAIN**
Xixilion 2, 3 sotoa
☎ 943 743 652

**TELLABIDE ITURGINTZA**
Azpilgoeta, 19 Mendaro
☎ 943 755 062
☎ 607 755 062

**ZALDUA ITURGINTZA**
Urasandi, 26
943 740 530



**IMAR AROZTEGIA**
Erreformak
☎ 943 531 471
☎ 646 905 564
☎ 609 054 978

**IRIONDO AROZTEGIA**
Olaso 17, behea
☎ 943 744 369

**LODOSO AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 16
☎ 943 743 490

**SORALUZE AROZTEGIA**
Santa Ana, 8
☎ 943 743 634

**ASKETA IGELTSERITZA**
Maxpe 3, Deba
☎ 629 344 389

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ 605 705 204

**MENDEZ IGELTSERITZA**
Urasandi, 24
☎ 943 742 987
☎ 679 197 747

**URZELAI ELEKTRIZITATEA**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 741 376



**GLAS CONTROL ISOLAMENDUAK**
Olaso 27, 47 pabiloia
☎ 943 743 094



**ANGEL ITURGINTZA**
Santa Ana, 5
☎ 943 741 761
☎ 689 049 206

**ONGI ITURGINTZA**
Olaso polignoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 741 082

**PAGOAGA ITURGINTZA**
San Antolin, 13
☎ 943 740 279

**NU-VAN PROIEKTUAK**
Bernardo Ezenarro, 17
☎ 943 747 414

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 26 behea
☎ 943 741 552
☎ 606 431 119-20

**CORDON VILLARCHAO**
San Roke, 7
☎ 943 742 874

**ETXEKIT**
Arrillaga z/g
☎ 943 744 347

# Dekorazio errustikoa modan

Nekazalturismoa indarrean dagoen garai honetan, dekorazio errustikoa modan dago. Erraza eta praktikoa da. Dekorazio errustikoak hormetako akatsak estaltzeko balio du, eta askotan etxeetan obra handiak egin beharra saihesten du. Estilo errustikoan egurra eta harria dira material erabilienak, beti ere, elementu berri eta modernoekin uztartuta.

Hauek kalitate oso altua eskaintzen dute, bai etxe barruan, eta baita kanpoko aldean ere.





**Estilo errustikorako hainbat aholku:**

- Kristal batez babesturik, zereal eta haziak ikusten diren altzariak erabili.
- Oihal errustikoak, linoa eta kotoia uztartu.
- Kandelak, artisauzko beiraz eginiko ontziak, minbre edo brontzezko elementuak... erabili apaintzeko.
- Minbrezko detaileak erabili altzarietan eta komunean.
- Banbu kanaberak erabili.
- Gortinetarako linozko oihala erabili.
- Etxe errustikoetan, bex kolorea, hezur kolorea, erre kolo-


SORALUZE AROZTEGIA

- "Rotura"dun aluminioa
- PERFILTHERMIK modeloko poliuretanoa
- HERMET-10 PVCa
- Bainuko manparak
- Ateak



FABRIKA:
Olasope, 66 • ELGOIBAR
Tel./Faxa: 943 74 21 03
ERAKUSKETA:
Santa Ana, 8 • Tel.: 943 74 36 34 • ELGOIBAR
Goiko Kale, 16 • Tel.: 943 81 02 74 • AZPEITIA

BIOK
DEKORAZIOA




Gehieneko bermea
akabera eta
garbiketan!



- Fatxadaren erreabilitazioa
- Apaintzeko pintura
- Pareta lisoak
- Parket flotatzailea
- Pintura orokorrean

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!



Santa Klara, 26 behea ezkerra
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20

# Feng Shui, gauza bakoitza bere lekuan

Feng Shui-a Txinan sortu zen duela 3.000 urte inguru. Feng Shui-a gauza bakoitza bere lekuan kokatzearen artea da, eta bere helburua espazio eta dekorazioaren bitartez gizakion bizi kalitatea hobetzea da. Azken finean, Feng Shui-ak norberaren eta inguratzen duenaren energiak orekatzen ditu.
Horretarako, oinarrizko bost elementuak uztartzen ditu: ura, sua, egurra, lurra eta metala. Ikurren hizkuntza da Feng Shui-a, etxearen forma interpretatzen duen hizkuntza. Ez ditu aldaketa nabarmenak sortzen, baina gizakiaren bizi kalitatea hobetzen laguntzen du.



**Feng Shui-a eguneroko bizitzan aplikatzeko aholkuak:**
• Etxeko sarrerak zabala izan behar du. Ez bete objektu askoz.
• Oheek logelako atea bistan utzi behar dute.
• Komunetako ateak itxita eta konketaren estalkia jaitsita eduki.
• Apalen azpian lan edo lo egitea ez da komenigarria.
• Egoera kaskarrean dauden lorak ez eduki.
• Punta eta izkinak saihestu.
• Oinarrizko bost elementuak (ura, sua, egurra, lurra eta metala) erabili behar dira etxeko edo bulegoko dekorazioan.
• Argi naturalik ez duten pasiloak, argi artifizialez argiztatu.



# MUEBLES EL ALMACEN



Kolore, neurri
eta materialak
zure beharretara
egokitzen ditugu.





Urasandi, 21 · ELGOIBAR
Tel.-Faxa: 943 74 29 41





Sukaldeak eta armairu landatuak



# Hotza da kanpoan...

Etxeko epeltasuna beti izaten da gozoa, baina are gehiago kanpoan hotz egiten duenean. Lanetik, eskolatik edo kaletik etxeratzerakoan, etxeko epeltasunean murgiltzea gustatzen zaigu denoi. Horretarako, ordea, gauzak ondo egin behar dira, eta etxe barruko epeltasuna bertan mantentzen jakin behar da. Kontuz ibiltzen ez bagara, beroak etxetik ihes egingo du. Beraz, ondo ikasi gaurko ikasgaia.



**Etxea epel mantentzeko aholkuak:**

- Etxea eguerdian aireztatzea komeni da.
- Logela bat aireztatzeko 10 edo 15 minuturekin nahikoa da.
- Ez da komenigarria egongelan erre ostean, usaina kentzeko gau guztian leihoa irekita edukitzea.
- Udan iparraldera ematen duten leihoak ireki behar dira etxean freskotasuna sartzeko, eta neguan alderantziz, ahalik eta aire epelena sartu dadin.
- Neguan berogailua ipini eta leihoak zabaltzea alferri-




LODOSO LEIHOAK

Zure neurrira egindako lana

ARCO EUROPA GOLD STAR AWARD KALITATEA

- PVCa
- ALUMINIO TERMIKOA
- POLIURETANOA
- ALUMINIOA - EGURRA



Sigmako industrialdea, Xixilion, 2 - 2. pabiloia 3 zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

ONGI
ITURGINTZA

- Aire egokitua
  eta sistema integralak
- Klimatizazioa
- Berokuntza
- Gasa
- Iturgintza
- Erregai likidoak (gasoleoa)
- Eguzki energia

ERAKUSKETA









GOKI ERREFORMAK

**ERAKUSKETA**
**Olaso Poligonoa, 15**
**68 pabiloia**
**20870 ELGOIBAR**

**Tel.: 943 74 28 80**
**943 74 42 23**
**943 74 46 40**
**Faxa: 943 74 45 87**

## Burlete bidezko **isolamendua**

Haizea, hotza eta zaraten aurkako isolamendurik onena, burleteen bidez lortzen da.

**Zer dira burleteak?** Leihoaren markoa eta kristalaren artean jartzen diren altzairu inoxidablezko xaflak dira. Leihoa ixteaz bat, tentsatu egiten dira, eta zirrikitu guztiak estaltzen dituzte. Xafla honek ez du kanpoko hotza barneratzen uzten, eta barruko beroari ez dio ihes egiten uzten. Beroak hotza bilatzen du beti, eta burleteen bitartez ez du ihes egingo.



Sistema hau duela 90 urte baino gehiago sortu zen Eskandinabiako herrialdeetan. Sistema ekologikoa, azkarra eta erraza da. Leiho zaharretan jartzen dira burleteak, batez ere, egurrezko leihoetan, baina egurra egoera onean egon behar da. Ia %100eko isolamendua lortzen da.

Etxe batean epeltasuna mantentzeko, egokiena etxe guztia isolatzea da. Ez du ezertarako balio logela bat bakarrik isolatzea, hango atea irekitzen denean, beroak alde egingo baitu etxeko beste




# URRIA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## HILDAKOAK

**Antonio Martin,**
60 urte, urriak 1

**Miguel Sanchez Lejarza,**
85 urte, urriak 1

**Carlos Aguirre,**
73 urte, urriak 3

**Lourdes Rodriguez,**
59 urte, urriak 5

**Felisa Arenas Gomez,**
93 urte, urriak 7

**Jeronimo Oñederra Egaña,**
80 urte, urriak 7

**Benito Txurruka Zubiaurre,**
71 urte, urriak 11

**Josefa Unanue Azpiazu,**
87 urte, urriak 11

**Benito Lopez,**
86 urte, urriak 17

**Concepcion Arregi Arregi,**
74 urte, urriak 23

**Carmen Iglesias,**
88 urte, urriak 25

**Jose Luis Fernandez Mendizabal,**
59 urte, urriak 25

## EZKONTZAK

**Javier Rodriguez eta Angeles Martinez**
(urriak 9)

**Isaac Suarez eta Montserrat Guillen**
(urriak 9)

**Manuel Agea eta Amada Amuategi**
(urriak 23)

**Martin Cano eta Esther Egaña**
(urriak 30)

**Asier Sasiain eta Lucia Lascurain**
(urriak 30)


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK · TRASLADOAK ·KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01


## JAIOTAKOAK



**Leire Leon Arriola,**
irailak 29,
Antonio eta Jone



**Lucia Migales Garcia,**
urriak 20,
Antonio eta Leire



**Ekaitz Lago Zangitu, urriak 14,**
Juan Carlos eta Zuriñe



**Eider Ansola Ansotegi,**
urriak 20,
Juan Ignacio eta Nerea



**Aroa Santana Cabanzon,**
urriak 21,
Igor eta Elisabet



**Garazi Arriola Ayerdi,**
urriak 8,
Santiago eta Izaskun



**Aiala Sierra Bello,**
urriak 24,
Hugo eta Marta



**Aitana Rua Rodriguez,**
urriak 27,
Ibon eta Amaia

**Nora Mugika Picabea,**
urriak 18,
Gorka eta Leire

# Izeta III.ak irabazi zuen Egiren aurkako harrijasotze apustua

## Aiarrak 30 jasoaldiko aldea atera zion elgoibartarrari

30 jasoaldiko aldea atera zion Jesus Mari Iruretagoiena "Izeta III"ak Javier Arriola "Egi" elgoibartarri elkarren aurka joan zen domekan, hilaren 31n, jokatu zuten apustuan. 6.000 euro jarri zituzten jokoan eta aiarrak merezimendu osoz poltsikoratu zituen. Izeta III.ak 233 jasoaldi egin zizkion 100 kiloko harriari 3 minutuko beste horrenbeste txandatan. Egik 203 jasoaldi egin zituen. Biak ere Agustin Ostolazaren markatik (249) oso urrun geratu ziren. Eguraldiak lagundu ez arren, 700 lagunetik gora hurbildu ziren Azpeitiko zezen plazara apustua zuzenean ikustera. Azken urteotan Usurbilen bizi den elgoibartarrak Mintxeta eta honen iloba izan zituen laguntzaile. Izeta III. hasi zen lanean lehenbizi, zorteak hala erabakita. Aiarrak 80 jasoaldi eman zituen lehen txandan eta 73 Egik. Bigarren txandan 77 jasoaldi eman zituen Izetak. Aurkariaren lan txukuna ikusirik, behar besteko motibaziorik gabe ekin zion bigarren txandari elgoibartarrak, eta 67 jasoaldi lortu zituen. Hirugarren txandan 63 jasoaldi lortu zituen Egik eta 76 Izetak.



## Azaroaren 20an ospatuko da Gipuzkoako Oilagor Txapelketa

Gipuzkoako hainbat menditan aldi berean ospatuko da Gipuzkoako Oilagor Txapelketa azaroaren 20an. Azken urteetan moduan antolatu da txapelketa eta bost kontrol puntu ezarri dira: Azari elkartea (Ordizia), La Union elkartea (Elgoibar), Bear-zana elkartea (Billabona), Katagorri Elkartea (Legazpia) eta Bizardia elkartea (Oiartzun). Txapelketan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da aurrez izena ematea azaroaren 10ean eta 11n, 19:00etatik 20:00etara, La Union Ehiza eta Arrantzu Elkartean (Kalamua kalea, 25). Eman behar diren datuak honako hauek dira: izen-abizenak, NAN-a eta lizentziaren zenbakia. Epaile lanak egingo dituenari ere datu berberak eskatuko zaizkio.



## 52 lagunek ezagutu zituzten Iratiko bazterrak Morkaikorekin



Santu Guztien Eguneko jai-zubia aprobetxatuz Iratiko basoa ezagutzeko aukera izan zuten 52 lagunek Morkaiko Mendizale Elkartearekin. Mauletik (Zuberoa) bi kilometrora dagoen Chateau de Libarrenx jauregi-aterpetxean hartu zuten ostatu eta handik abiatuta Iratiren iparraldeko muga guztia egiteko aukera izan zuten, nahiz eta domekan eguraldi txarraren erruz ezin izan zuten mendira atera. Lehen egunean Iratiko etxoletatik gora Ori (2018 m.) mendira igo ziren eta handik Larrañera jeitsi. Azken egunean, berriz, Iratiko Etxoletatik abiatu eta Eskaliers Burdingurutzeta pasa ostean Okabe (1.466 m) mendira igo eta Pedroren Etxolan amaitu zuten 5 orduko ibilaldia.

# Udal Kirol Patronatuak eskaintzen dituen ikastaroen betetze maila %90ekoa baino handiagoa da

Udal Kirol Patronatuak 12 ikastaro motatan jarduteko aukera eskaintzen du. Jarduera horietan ia mila pertsonak, 915 lagunek, hartzen dute parte hilero. Eskainitako ikastaroen plazetatik, %90 baino gehiago beteta dago. Ikastaro hauek dira ikasle gehien dituztenak: jubilatuentzako gimnasia (%100 beteta), spinning-a (%99), igeriketa (%95) eta aerobika (%97).



Spinning modalitateari dagokionez, 10 dira martxan dauden taldeak. Talde horietan 159 lagunek hartzen dute parte. Igeriketa egiteko, berriz, 15 ikastaro daude, eta 199 ikasle dabiltza ikastaro horietan. Kirol modalitate horretan, oraindik ere, badago lekuren bat libre. Bestalde, badira bi talde jubilatuentzako gimnasia egiten dutenak. Bi talde horiek beteta daude, eta guztira, 74 lagunek dihardute bertan. Era berean esan dezakegu, aerobika dela Patronatuak egiten duen eskaintzarik estimatuena; izan ere, gaur egun, 15 aerobik talde daude abian (6 talde Olaizaga kiroldegian eta 9 talde Mintxetan). Guztira, 270 lagun biltzen dira hilero talde horietan. Gainontzeko jardueretan jende gutxiago dabil, hala ere dezente beteta daude; hala nola, dantza (4 talde eta 44 pertsona), aquaerobika (3 talde eta 46 ikasle) eta karatea (26 ikasle). Jende gutxien erakartzen duten ikastaroak, ordea, honako hauek dira: Taichia, Saltsa, Bioenergia, Wing-Tsun eta Fitness-a.

## Angel Ibarluzeak irabazi zuen Mallabiko Bolo Txapelketa

San Migel taldeko Angel Ibarluzea nagusitu zen Mallabiako Goitta bolatokian ospatu zen Bolo Txapelketan. Euskadiko XV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketari zegokion hirugarren jardunaldia zen eta 79 bolarik parte hartu zuten bertan. Azkenean iazko txapeldunak, Ibarluzea sanmigeldarrak, egin zituen jaurtialdirik onenak eta 8 txirlorekin bera nagusitu zen. Asola-Berri taldeko Jesus Mari Diez eta



Bittor Astigarraga azkoitiarrak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuan, hurrenez hurren, 8 txirlorekin hauek ere. Sailkapen orokorrean Bittor Astigarraga dago lehendabiziko postuan 18 txirlorekin eta Imanol Osoro eta Angel Ibarluzea sanmigeldarrak ditu atzetik 16 txirlorekin. Hurrengo jaurtialdia Elgoibarko San Pedroko bolatokian izango da, zapatu honetan, azaroaren 6an, 16:30etik aurrera.

## Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Behobia-Donostia Herri lasterketan parte hartu nahi duten korrikalari guztientzat autobusa jarri du. Froga hau, datorren azaroaren 14an, domekan, izango da. Izen emateak Olaizaga Kiroldegian egin beharko dira azaroaren 12ko goizeko 12:00ak baino lehen. Prezioa 10 eurokoa izango da Patronatuko bazkideentzat eta 12 eurokoa besteentzat. Autobusa goizeko 8:30ean aterako da King-Kong-eko autobus geltokitik.

## EMAITZAK

### Futbola

B. Vilarreal **3** – **Haundi 2 (3. maila)**
Elgoibar **3** – Ilintxa **0 (1. erreg.)**
Elgoibar **2** – A. Mendi **0 (Jub.)**
Eibartarrak **3** – Elgoibar **1 (Kad.)**
Elgoibar **2** – Beasain **2 (Inf. A)**
Neskak **0** – Anaitasuna **8 (Neskak)**
Elgoibar F-8 **2** – Gasteiz **1 (Neskak F-8)**

### Esku pilota

Lagunak **22** – Hernani **20 (Jub.)**
Zazpi Iturri **16** – Lagunak **22 (Nag.)**
Beloki **14** – Lagunak **22 (Kad.)**

### Areto Futbola

Santurtzi **2** – Kenci Elg. **3 (Nazional B)**
Lanbroa **6** – Laskorain **3 (1. maila)**

### Eskubaloia

Tecnomeca Sanlo **18**–Ite Hondarribi **27 (Kd.mt.)**
Pneumax Sanlo **16**–Aldaketa Zarautz **24 (Jb.mt.)**
Urola **17** – Antt Sanlo **17 (Senior mut.)**

### Idarraga kafeak 8. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 04/05**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| **1-** J. Igartua | **17** |
| **2-** Mikel Calvo | **12** |
| **3-** Loren | **12** |
| **4-** Iribar | **8** |
| **5-** M. Elkoro | **8** |
| **6-** I. Oruesagasti | **8** |
| **7-** Etxabe | **8** |
| **8-** A. Arenas | **7** |
| **9-** J. Arrasate | **6** |
| **10-** Javi Gomez | **6** |

## AGENDA

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 6**
**17:30** Pagoaga Sanlo – Zarautz **(Kad. nesk.)**
**19:00** Cometel Sanlo – Zarautz **(Jub. nesk.)**
**Domekia, 7**
**11:00** Antt Sanlo – Pulpo **(Sen. mut.)**
**12:30** Sanlo – Elorrio **(Sen. nesk.)**

### Areto futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 6**
**16:00** Kenci Elg. – GSI Bilbao **(Nazional B)**

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 6**
**18:30** Elgoibar – Zumaiako **(Neskak)**
**Domekia, 7**
**10:30** Elgoibar – Aretxabaleta **(Inf. B)**
**12:00** Elgoibar – A. Ondarroa **(Kad.)**

### Esku pilota, Ikastolan

**Barixakua, 5**
**22:15** Lagunak – Anaitasuna **(Jub. banaka)**
**23:00** Lagunak – Lazkao **(Nag.)**

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Eibarko enpresak **kamioi txoferra** behar du. **Erref. 162004008888**

Bergarako enpresak **gaztelera eta ingeles irakaslea** behar du. **Erref. 162004009324**

Zumaiako enpresak **ileapaintzailea** behar du. **Erref. 162004009226**

Arrasateko enpresak **auto mekanikoa** behar du. **Erref. 162004009346**

Debarako **inkestatzaileak** behar dira. **Erref. 162004009211**

Bergarako enpresak **informatika irakaslea** behar du. **Erref. 162004008529**

Donostiako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004008924**

Mendaroko enpresak **etxez etxeko laguntzailea** behar du. **Erref. 162004009149**

Elgoibarko enpresak **etxez etxeko laguntzailea** behar du. **Erref. 162004009147**

Elgoibarko enpresak **elektrikaria** behar du. **Erref. 162004009144**

Eibarko enpresak **torneroa** behar du. **Erref. 162004008940**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

♦ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 60 91 90**

♦ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **637 93 24 26**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ **626 91 49 04**

♦ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Egunez eta gauez. Esperientzia. ☎ **677 09 70 15 (Mª Carmen)**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuak barne. ☎ **660 91 94 23**

♦ Neska administrari lanetarako prest. ☎ **655 70 70 33 (Leire)**

♦ Kamarero, sukaldari laguntzaile edo igeltsero peoi lanetarako prest. ☎ **678 840 531**

♦ Emakumea edozein lanetarako prest. Arratsaldez. ☎ **660 91 94 23**

### ESKAINTZA

♦ Tabernako sukaldean asteburuetan lan egiteko emakumea behar da. ☎ **615 72 34 80**

♦ Goxoki dendarako neska edo emakumea behar da, asteburuetarako. ☎ **675 70 81 33**

♦ Asteburuetan gozotegian lan egiteko neska edo emakumea behar da. ☎ **943 75 50 20/656 73 28 20**

♦ Taberna jatetxerako asteburuetarako kamarera behar da. ☎ **635 75 16 42**

♦ Jatetxerako sukaldaria behar da. ☎ **652 77 82 10**

♦ Kafetegirako kamareroak behar dira. ☎ **617 69 11 31**

## Lokalak

♦ Errosario kalean lokala alokatzen da. ☎ **690 75 96 96**

♦ San Bartolome kalean lokala alokairuan. Ez du obra beharrik. ☎ **667 94 24 33 (gauez)**

## Partikularrak

♦ Administraritza eta enpresa zuzenbideko 2/3 ikaslek matematika klaseak hartuko lituzkete. ☎ **649 39 36 17**

♦ Ingelesezko klase partikularrak ematen dira. ☎ **656 53 33 90**

♦ Bibolin eta pandero klaseak ematen dira. ☎ **656 77 42 15 (Amaia)**

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Etxebizitzak

♦ Soraluzen etxe berritua salgai. Garajea, entreplanta. Komunak eta sukaldia amueblatuta. 144m$^2$. ☎ **615 77 99 20**

♦ Etxea salgai San Frantzisko kalean. 70m$^2$. 3 logela, egongela, sukaldea eta galeria, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **665 73 90 69**

♦ Etxea salgai Eibarren. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Dena kanpora begira. Garajea aukeran. ☎ **625 59 44 46**

♦ Apartamentua eta txokoa salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezin hobea. ☎ **639 47 47 39 (Manolo)**

♦ Logela alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**

♦ San Frantzisko kalean bi etxebizitza alokatzen dira. ☎ **690 75 96 96**

♦ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Altzariekin eta berogailu zentrala. ☎ **943 74 02 68/699 17 98 72**

♦ Pisua salgai Mendaron. Berria. Garaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ **686 045 321/943 74 15 21**

♦ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora. Prezioa adosteko. Aukera paregabea. ☎ **625 26 09 39/943 75 62 05**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

♦ Pisu txikia edo buardila hartuko nuke alokairuan, edo etxea konpartituko nuke. ☎ **677 09 70 15 (Mari Carmen)**

♦ Etxea salgai Arregitorren. 4. pisua. 3 logela, egongela, bainua, komuna, sukaldea eta ganbara. Garajea erosteko aukera. ☎ **943 74 09 57**

♦ Etxea salgai Mendaron. Berria, altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia. ☎ **609 96 53 95/650 12 96 05**

♦ Gasteizen pisua osatzeko pertsona behar da. Gauez deitu edo mezua laga. ☎ **945 27 42 83**

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **678 840 531**

♦ Bi logelako apartamentua hartuko genuke alokairuan. ☎ **679 819 314 (Amaia)**

## Salerosketak

♦ MIRO DC 30+ bideo kapturatzaile tarjeta eta eskuliburua gazteleraz eta Adobe Premiere 5.1 salgai. ☎ **943 11 98 60/630 15 66 01**

♦ L.G. markako retroproiektorea salgai. 44 pulgada. 10 DVD pelikula opari. 2.500 euro, negoziagarria. ☎ **943 74 34 23/627 67 93 52**

♦ Pioneer markako anplifikadorea, disko giratzailea, 40 disko, 80Wko bi bafle salgai. 200 euro. ☎ **943 74 34 23/627 67 93 52**

♦ Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. (aulkia, grupo 0, zakuak...) ☎ **636 12 95 43 (Jaione)**

♦ Play Station 2 salgai. 2 mando, 2 memoria (8MG), motxila, jokoak... 180 euro. ☎ **696 89 60 88**

♦ Opel Astra TDI familiarra salgai. SS-BJ ☎ **629 63 52 03**

♦ Ospitalerako moduko ohe artikulatua salgai. Ia berria. ☎ **943 74 14 55**

♦ HP ordenagailua salgai. Monitorea, teklatua, arratoia, eskanerra, CPU eta inpresora. 500.000 ptan baloratua. 1800 euroren truke. ☎ **686 22 84 04**

## Bestelakoak

♦ Nafarroa Oinez-era joan zen autobusean 3 giltz agertu dira. Jabea pasa dadila Elgoibarko Izarratik.

♦ Urte eta erdiko artzai txakurra oparitzen da, zaindu ezinagatik. ☎ **677 09 70 15**

♦ Karitasek arropa garbigailua, sukaldea, hozkailua eta butanozko berogailua behar ditu. ☎ **943 74 15 09**

♦ Txamarra beltz luzea galdu da. Bizkarraldean galdera ikur bat dauka. Balore sentimentala du. ☎ **660 02 79 76**

♦ Katu persa galdu da, zuria eta grisa. Saritu egingo da. ☎ **943741460 (Vanesa)**

## Garajeak

♦ Garajea salgai Pista Beltzean. Bi kotxe sartzeko tokia. Irekia. 12.000 euro. ☎ **943 74 20 34**

♦ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Merke. ☎ **943 74 35 43**

♦ Garajea salgai Madalatik gertu. ☎ **943 74 24 06**

♦ Garajea salgai Pedro Muguruzan. ☎ **645 72 79 11/943 74 41 85**

♦ Garaje itxia alokairuan Ikastola ondoan. ☎ **943 53 16 48**

## Agurrak



♦ Zorionak **Josu**ri, azaroak 3an 5 urte bete zituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Maider**, hilaren 2an, 7 urte bete zenituelako. Gurasoen, eta bereziki anaia Unax-en partez.



♦ Zorionak **Nora**ri, hilaren 3an, 12 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Kevin**, hilaren 8an, 11 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta arrebaren partez.



♦ Zorionak **Leila**, hilaren 6an, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anaiaren partez.



♦ Hiru urte betetzen dituzun honetan, mila kilo zorion eta muxu handi bat, maitia.

♦ Zorionak **Danel** eta **Paul**, hilaren 19an eta 28an, urteak bete zenituztelako. Jonen partez.

♦ Zorionak **Jon**, urriaren 30ean urteak bete zenituelako. Gurasoen partez.

♦ Zorionak **Jodios!** Atzo izan zelakoan eta iadanik 10 urte. Muxu haundi bana eta urte askotarako!



♦ Zorionak **Javi** eta **Yoli!** Azkenean iritsi da hainbeste denbora itxarondako eguna! Zuen lagunen eta familiakoen partez.

***Elgoibarko Gazte Informazio Gunea***
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 16:30-20:00*

### BEKAK

**Ikerketa**

Arartekoak giza eskubideen esparruko ikerketa, prestakuntza eta azterketarako beka bat eskaintzen du. Ikerketa-bekaren helburu nagusia giza eskubideei buruzko ikerketa zientifikoa egitea da, herritarrek gaur eguen dituzten arazoak xeheki aztertuz, eta arreta berezia eskainiz EAEri. Bekaren iraupena 10 hilabetekoa izango da, eta zenbatekoa: 1.700 euro hilean. Epea: azaroak 15

**Kirol medikuntza**

Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, 2004. urterako gradu ondoko beka bat eskaintzen du, Errendimendu Altuko eta Kirol Zientzietako Ikerketako Zentroko Zuzendariordetza Nagusiari atxikitako Kirol Medikuntzako Zentroan. Baldintzak: Medikuntza eta Kirurgiako lizentziatu izan eta Hezkuntza Fisiko eta Kiroletako Medikuntzako espezialitatea izatea edo ikasten egotea. Beka urtebetekoa izango da eta hainbat aldiz luza daiteke. Zenbatekoa: 9.578 euro gordin urtean. Epea: azaroak 17

### EKINTZAK

**Komikia**

Donostia Kulturak antolatuta, "Komikien I. Jardunaldiak" ospatuko dira Donostian urriaren 29tik azaroaren 30era bitartean, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XV. Astearen barruan. Jardunaldien egitaraua zabala da eta mahai-inguruak, komiki-tailerrak eta erakusketak barne hartzen ditu. Informazio guztia www.donostiakultura.com web gunean.

### IKASTAROAK

**Anorexia eta Bulimia**

Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuak anorexia eta bulimia ezagutu eta baztertzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 6an hasiko da eta Bergarako Kultur Etxean emango da goizez, 10:30etik 12:30era. Informazioa eta izen-emateak Bergarako Udalean (943779124). Epea: plazak bete arte

**Boluntarioen prestakuntza**

Gizartekintzak depresio edo/eta antsietate sintomak dituzten adineko pertsonekin aritzeko boluntarioen prestakuntza-ikastaroa antolatu du Eibarren, azaroaren 8tik 12ra bitartean. Ikastaroa Lahar Elkargoa taldeak emango du eta gizarte erakunde ezberdinetan diharduten pertsonei, boluntarioei, zuzendariei... zuzendurik dago. Portalea Kultur Etxean emango da 16:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako Lahar Elkargora jo (943474182). Epea: plazak bete arte

### LANA

**Euskara teknikaria**

Getariako Udalean Euskara Teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: unibertsitateko erdi-mailako titulua edo baliokidea eta euskarako 4.hizkuntza eskakizuna izatea. Epea: azaroak 15

# Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 5 | Bidasolo | Bidasolo |
| 6 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 7 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 8 | Fernandez | Fernandez |
| 9 | Yudego | Yudego |
| 10 | Zabaleta | Zabaleta |
| 11 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 12 | Ibañez | Ibañez |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
7 igandea Fotero

## 5 BARIXAKUA

**22:00 BIDEO FORUM-A**
Izenburua: “El Jardin de la alegria”
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

**22:15 ANTZERKIA**
Antzezlana: “El Decameron de Boccaccio”
Taldea: Ados Teatroa
Herriko Antzokian

## 9 MARTITZENA

**17:00 JOSEBA RAMIREZ IPUIN KONTALARIA**
Udal Liburutegian

## 10 EGUAZTENA

**19:00 ELKARRIREN BILERA**
Gaia: Elkarriren egungo egoera
Kultur Etxean

## AISIALDI TXOKOA

### AZAROA

**Atxutxiamaika** AISIALDI TALDEA

"DEJA BÜ" TXONTXONGILO TALDEA
**AZAROAK 20, zapatua**
16:30 Herriko Antzokian
HH eta LH • **SARRERA:** Aurrez, umeek 2€ eta gurasoek 4€. Bertan, umeek 3€ eta gurasoek 5€

"BEHIN BATEAN...GABONAK" Idazlehiaketa 2004
**MARTXOAK 27, zapatua**
LH 1-2: Gabonetako marrazkia
LH 3-4: Olentzerori gutuna
LH 5-6: Ipuina. Gaia: "Sekretu bat daukat"
Lanak jasotzeko epea: abenduaren 3an

**GAZ-T** AISIALDI TALDEA

"EUSKARA LARDASKATZEKO MANERAK" Hitzaldia
**AZAROAK 18, EGUENA**
19:00 Kultur Etxeko Sotoan
DBH 1-2-3-4

PAINTBALL (Lasturren)
**AZAROAK 20, ZAPATUA**
DBH 1-2-3-4 (15 €)
Izena emateko epea: azaroaren 17an

*Informazio gehiago*
Tel: 943 74 16 26 (Aiora Azagirre)
*E-posta: aiora@elgoibarkoizarra.com*

## ZINE kluba



### "Zatoichi"

**Zuzendaria: Takeshi Kitano**
**Antzezleak: Takeshi Kitano, Tadanobu Asano, Michiyo Oguso.**
Japonia, XIX. mendea. Zatoichi masajeak emanez eta dadoetara jokatuz bizimodua ateratzen duen etxerik gabeko itsua da. Itxura umil horren azpian gerlari sutsu eta zorrotza ezkutatzen da, ordea, ezpatarekin duen trebezia edonor zur eta lur lagatzeko modukoa baita. Mendietan galdurik dagoen hiri batera ailegatzen denean bertako samurai ezagun bati egin beharko dio aurre. Zatoichi 60 eta 70. hamarkadetako japoniar telebistako pertsonaiarik ezagunetarikoa da.

## ERAKUSKETAK

**Margo erakusketa**

Anton Urreistiren margo erakusketa izango da ikusgai azaroaren 12tik 28ra bitartean, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Mutrikun jaioa da Anton Urreisti eta margolari autodidakta da, Ignacio Zuloaga eta Luziano izan direlarik bere inspirazio iturri garrantzitsuenak. "Luziano margolari elgoibartarrari liluraturik geratzen nintzaion begira, Mutrikuko kaleak eta portua margotzen ikusten nuenean", adierazi digu.

## ANTZERKIA

**"El Decameron de Boccaccio"**

Ados Teatroa taldeak "El Decameron de Boccaccio" antzezlana eskainiko du azaroaren 5ean, barixakuan, Herriko Antzokian (22:15). Boccaccio idazte italiarraren lanik garrantzitsuena taularatuko dute. Bertan, 1348. urtean Florentzia hiria laga eta izurritik babesteko kanpoaldeko herrixka batean babes hartzen duen lagun talde baten berri ematen zaigu. Edukazio oneko lagun zortedunak dira istorio ezberdinak elkarri kontatuz pasatzen dituzte izurritea bukatu bitarteko egunak . Barrea erabiltzen dute heriotzaren aurkako antidoto gisa.

## IKUSKIZUNAK

**Ipuin kontalaria**

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, azaroaren 9an, martitzenean, Joseba Ramirez, ipuin kontalaria Udal Liburutegian izango da. Bi saio eskainiko ditu. Lehenengoa 3, 4 eta 5 urteetako geletako umeentzat 17:00etan eta bigarrena 1, 2 eta 3.mailetako umeentzat 17:30etan.

## LEHIAKETAK

**Postal Lehiaketa**

Elgoibarko Udalak, Gazte Informazio Bulegoak eta Elgoibarko Izarrak 2005. urtea zoriontzeko Gabon Postal Lehiaketa antolatu dute elkarlanean. Postal irabazlea Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoak eta Udaleko Kultura eta Euskara zerbitzuek 2005. urtea zoriontzeko erabiliko dute. DBH eta Batxilergoa ikasten duten gazteei zuzenduriko lehiaketak bi maila izango ditu. A maila: DBHko ikasleak eta B maila: Logseko ikasleak. Postalen neurria: 15 x 10 cmkoa izango beharko da eta nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira. Lanak disketean edo paperean entregatuko dira. Postalak eskaneatu egingo dira eta, beraz, ez dute erlieberik izan behar. Argazki kamara digitala, disc man-a eta pare bat euskal CD eta liburu sorta izango dira sariak. Lanak entregatzeko azken epea: azaroak 23. Informazio gehiago nahi izanez gero eta lanak entregatzeko Elgoibarko Informazio Bulegora jo: Nafarroa Plaza, 3. Telefonoa: 943 74 14 61. Email: elg.gzerbitzua@terra.es

## zine KARTELDEGIA

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"El Bosque"**
6, zapatua: 19:30-22:15
7, domekia:19:30-22:15
8, astelehena: 22:15

**"Garfield La Pelicula"**
7, domekia: 16:30

**"Zatoichi" (Z.K.)**
11, eguena: 22:15

**EIBAR, Unzaga**

**"Misteriosa sesion"**
5, barixakua: 19:30-22:15
6, zapatua: 17:00-19:30-22:30
7, domekia: 17:00-19:30-22:30
8, astelehena: 19:30-22:15
9, martitzena: 19:30-22:15
10, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**

**"Collateral"**
5, barixakua: 19:30-22:15
6, zapatua: 17:00-19:30-22:30
7, domekia: 17:00-19:30-22:30
8, astelehena: 19:30-22:15
9, martitzena: 19:30-22:15
10, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ZINEA



### "El Bosque"

**Zuzendaria: M. Night Shyamalan.**
**Antzezleak: Bryce Dallas Howard, Joaquin Phoenix, William Hurt.**
Pennsylvania, XIX. Mendearen bukaeran. Herrixka isolatu batetako biztanleek elkarbizitza lasaia daramate. Izaki arraro batzuk bizi diren baso baten ondoan kokatuta dago herria eta bertakoak ez dira harantzago joaten ausartzen. Denak ez, ordea, Lucius Hunt basoak ezartzen duen muga gainditzeko prest baitago eta ezezaguna den mundu horretan barneratzeko.




Aste honetako erretratu zaharra, benetan zaharra da, 1928. urtekoa hain zuzen ere. Urte asko eduki arren primeran kontserbatzen da eta garai hartan ere argazki ederrak ateratzen zituztela ikus dezakegu. Bertan agertzen den elgoibartar neska koadrila hau Karkizanoko dendan aritu zen josten ikasten Antonia Arrillagaren ardurapean. Garai hartan josteko behar eta afizio handiagoa zegoen. Argazkiko guztiak hilda daude jadanik. Ikus dezagun nortzuk ziren. Izen eta abizenen atzean bakoitzaren jatorrizko baserria jarri dugu.

Goiko ilaran ezkerretik eskumara: **Rufina Urreta**, **Josefa Uria** (Lizundia Txikikoa), **Teresa Agirre** (Urruzuno Txikikoa) eta **Maria Elustondo** (Ibartxikikoa).

Eserita, ezkerretik hasita: **Celedonia Gabilondo** (Garagartzakoa), **Vitori Bergaretxe** (Zabaletakoa), **Martina Iriondo** (Bekoetxe), **Antonia Arrillaga** (Aranekoa) eta **Bittori Arrieta** (Irabanetakoa)

Lurrean eserita: **Maria Aizpitarte** (Zelandi), **Sotera Zubiaurre** (Usetxe) eta **Puri Gabilondo**.



***I. URTEURRENA***
*2003ko azaroaren 4an, 82 urte zituela hil zen*
***JESUS ARCE MARAÑON**en oroimenez*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da*
*larunbata, hilak 6, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



***I. URTEURRENA***
*2003ko azaroaren 8an, 87 urte zituela hil zen*
***JESUSA BARRENETXEA OSORO**en oroimenez*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da*
*larunbata, hilak 6, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

# ETXEBIZITZEN SALMENTA

- ETXEBIZITZAK
- APARTAMENDUAK
- DUPLEXAK
- LORATEGIDUN DUPLEXAK
- GARAJEAK
- MERKATARITZA LOKALAK




Salmenta bulegoa:
Bernardo Ezenarro, 2
943 740 858

Eraikitzailea: AMENABAR

Sustatzailea:
URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.

# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador Santa Klara




artair

NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA
943 852 411 - 943 317 511

- *3 logelako etxebizitzak eta 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin*
- *Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.*






Komunerako altzariak eta osagarriak

Hidromasajezko kabinak eta bainerak



Lorezaintza eta ferreteria saila



Biltegia



Zeramikak

cerámicas Anchústegui s.a.

Anchústegui Sanyfer S.L.




Olaso Industrialdea • Olasope, 5 • Tel.: 943 74 33 44 • 943 74 06 92 • Faxa: 943 74 37 11

Almazena: 943 74 20 38 • 943 74 23 71 • E-posta: sanyfer@anchustegui.com